



ABERRI EGUNA

Aberri Eguna dela eta ELAk bere hausnarketa politikoa berritu eta Euskal Herri burujabe eta librearen proiektuarekiko atxikimendua berresten du.

Inboluzioa agenda nazionalan

Uneotan gure sindikatuak ezinbestean behatu behar du Madrilen independentismo katalanaren aurka irekita dagoen auzia. ELAren ustez epaiketa politiko honek frogatu du ideia bat bertan behera utzi behar dela: estatu honetan katalan zein euskal nazioa txerta daitekeela. Laster beteko dira berrogei urte estatutuen bidea hasi zenetik, eta ondorio batera iritsi beharra dago: orain arte ibilitako bideak behin betiko itxi dira. Porrot egin zuen borroka armatuak haustura bide gisa; porrot egin zuen estatutismoak aitortza nazionalerako bide posibilista eta mailakatu gisa; porrot egin dute marko juridikoa espainiar legeak aintzat hartuz erreformatzeko saioek, esaterako “Ibarretxe plana” zelakoak edota 2006ko Estatut katalanak; orain, berriz, 2017ko urriaren 3an Felipe VIak zuzenean emandako aginduari jarraiki, zigortzen ari dira prozesu zibil eta baketsu bat, duela urtebete kontsulta autodeterminista egiteraino iritsi zena. Arazoa, nazioei dagokienez, ez datza soilik Espainiako eskuin zahar edo berrietan. Izan ere, ezkerreko sektore zabalen arazoa ere bai baita, diktadorea hil zenetik bat baitatzat autodeterminazio eskubiderik ez dagoela, eta ez dela egongo.

Testuingurua hain latza izanik, etsigarria izan da Urkullu lehendakariaren jokabidea azken aldian. Batetik, auzi-saioan eman zuen testigantza. Argi geratu da ezen, behin bere bitartekaritza alferrekoa izan zela ikusi zenean (Kataluniari fitsik ematen ez dion estatu batekin), erabakia hartu zuela: ez zen lider politiko katalanekin, ez kontsultarekin solidario izango. EAEn antzeko prozesurik (aktibazio soziala eta konfrontazio demokratikoa) gertatzea nahi ez duenez, oreka galdu du, unibertso abertzaleak *procésari* buruz duen sentipenetik urrun dagoen posizioa hartzeraino.

Errelatoa, *statu quo*aren zerbitzura

Bestetik, martxoaren 11n, terrorismoaren biktimak oroitzeko egun europarra zelarik, berriro exijitu zuen “*eragindako min bidegabearen aitortza*”. Bere asmoa bazen printzipio etikoek politika eta aliantzak baldintza zitzaten, lehendakariak era berean ukatu egin beharko lieke homologazio demokratikoa gure herrian giza-eskubideen urraketa larriak gertatu izan direla ukatzen duten indarrei. Lehendakariak eta bere alderdiak aliantza politikari buruzko behin

betiko erabakiak hartu dituzte, baina hain zuzen ez printzipio etikoen baitan. Aspaldi honetan EAJk PSE eta PPrekin duen ententeak estu elkar hartuta jokatzen du hainbat gaitan, esaterako zerga- edo aurrekontu-politikan, azken bi indar horiek negazionismoari eusten badiote ere. Horregatik, lehendakaria aitzindari duen “errelatoaren norgehiagoka”ren xedea bakarra da, alegia, ezker abertzalea politikan desgaitzea. Etika hartzen da ahotan, baina benetan beste zerbait bilatzen da: batetik, EAEn gehiengo autodeterminista eragozte eta, bestetik, beste politika batzuk ez saiatzea edo hitzartzea, PSE eta PP ez diren beste indarrekin. Hau da, etikaren amarrua baliatzen da aliantza molde jakin bat eta agenda zeharo estatutista eta neoliberal iraunarazteko.

Eskuinen emergentziaz / gorakadaz

ELA kezkatuta dago ikusirik zer gorakada izan duten eskuin muturrek Europa guztian zehar eta estatuan. Ordea, hori ez da kezka bakarra, betiko ezker eta eskuinak gorakada horretaz baliatzen baitira beste defizit demokratiko askoren aurrean ezikusiarena egiteko. Esaterako, sindikatuak uste du ez zaiola behar besteko garrantzi politikoa ematen euskal erakundeek jendarte zibileko organizazioekiko gutxiespenari. Hor ditugu, adibidez, Karta Sozialak eramandako HELa eztabaidatzeari Eusko Legebiltzarrak eman zion ezezkoa (areago, Nafarroako Gobernuak sinadurak biltzea ere ez zuen onartu!); euskal elkarrizketa soziala instituzionalizatzeko dekretua, zeinaren arabera posible den akordioak gutxiengo sindikalariekin iristea; administrazioek etengabe greba eskubideari jazartzea, edota gure herriko ordezkaritza sindikal nagusiarekin biltzeko ukoa...

Bereziki larria da nazionalismo instituzionalak duen jarrera antikolektibista, espainiar eskuinek aldarrikatzen duten politikaren ildo berekoa: gaur eta hemen sindikalismoari ukatu egiten zaio fiskalitateari edo azpiegituri buruz iritzia emateko eskubidea... Duela aste gutxi hautetsi jeltzale garrantzitsu bat prest omen zegoen grebalari talde batekin bilera egiteko, baina baldintza batekin: gure sindikatuko arduradunik gabe joatea; honek agerian uzten du indar politiko horren joera autoritarioa. Bide batez, indar horretxek sindikatu nagusiari galdegiten dio moderazio funtzio bat bete dezala, eta ELAk noski ez du horrelakorik egingo. Honekin esan nahi dugu Euskal Herria ez dagoela inondik ere autoritarismotik salbu.

Autogobernuaren aldeko borroka berrindartu

Bestalde, datorren inboluzioa ezin da aitzakia izan estatuarekiko soberania gatazka epeltzeko. Erresistentzia ez da garaipena, erresistentziak arrazoiak metatzen ez baditu, tentsio instituzionala eta mobilizazio soziala bultzatzen ez baditu. Erresistentzia ez da garaipena gertatzen dena bada kulturaren, politikaren edo hizkuntzaren asimilazioa, edota babes sozialeko lan baldintzetan beherantz berdintzea. Esaterako, duela gutxi Senatuan Gernikako estatutua errespetatu ez dadin onartu den mozioak eragin du Eusko Jaurlaritzaren erantzun bat, baina gure gobernuak esan ez duena da ez daukagula tresna legal bat ere estatuak legea bete dezan derrigortzeko. Euskal herritarrei hain egitate oinarritzkoa

ezkutatzea, Espainiaren menpe gaudela alegia, gatazka lokartzea eta desitxuratzea da.

Nafarroan, eskuinek hauteskundeetarako aliantza iragarri izanak ez luke eragotzi beharko sakoneko balorazioa egitea UPN foru gobernutik kanporatu zuten indar politikoei eragindako aldaketaren benetako tamainaz. Batetik, urrats ukaezinak egin dira zenbait arlotan: demokratizazioa, euskara, kultura edota orain arte baztertuta egon diren jendarte zibileko antolakunde errepresentatiboekiko errespetua. Haatik, beste arlo batzutan defizitak salatu ditugu ere. Horien artean garrantzi handikoa izan da Iruñeko gobernuak duela gutxi hartutako erabakia -Gasteizko gobernuak bezalaxe-, bere horretan onartzea estatuak ezarritako aurrekontu mugak (baita Parlamentuaren aginduari muzin eginda ere), eta zerga-politikan aldaketa handirik ez egiteko borondatea. Agian horregatik dago CEN gobernuarekin pozik. Gastu soziala handitzeko aukera baztertu ez ezik uko egiten zaio are elementalagoa eta lehentasunezkoa den beste zerbaiti, alegia, jendarteari ikusaraztea. Amejoramentuak zer nolako mugak dituen, eta horrek dakarren beharra gure autogobernua aitzinarazi eta zabaltzeko.

Nafarroan zein EAEn agerian ari dira geratzen dinamika instituzionalak eman ditzakeen fruituak. Prozesu nazionalak behar du, noski, instituzionaltasuna bere dimentsio guztietan (soziala, kulturala, politikoa...) , baina baita indarrak metatzea, mobilizazio militantea, koadroak finkatzea eta dinamika sozialak indartu eta ahulduko ez dituen ildo estrategiko bat finkatzea.

Memoria, biktimak eta presoak

Behin ETA armagabetu eta deseginda, bakearekin lotutako agenda oso blokeatuta dago, batik bat espainiar estatuarekin. ELA oso pozik dago Ipar Euskal Herriko interlokuzio pluralak frantses gobernuarekin lortu dituen emaitzekin. Baina ez gatoz bat errelatoaren norgehiagokarekin, hau baliatuz eragile politiko batzuk Hegoaldean eztabaida politikoa kateatu nahi baitute.

Lehenago esan dugu ezin dela onartu homologazio demokratikoa ematea PP eta PSOeri, oraindik tematuta baitaude iraganean izandako urraketa oso larriak ukatzen, edo egungo urraketak legitimatzen, esaterako euskal presoek aplikatzen zaien espetxe-politika. Urruntzea eta dispersioa, gaixorik dauden presoen egoera... eskandalu hutsa dira ikuspuntu demokratiko eta humanitariotik.

Halaber, salatu egin nahi dugu eremu ofizialek egindako edo eragindako hainbat bortizkeriaren biktimak ez direla aitortu. Biktima guztiei zor zaie egia, justizia eta erreparazioa; urraketak berdinak izan direnean aitortza eta eskubide berberak eman behar dira. Egia eta erreparazioaren politikari ezarritako muga beste adibide bat da Nafarroako Parlamentuak lege bat estatuak inposatutako muga baitan egin behar izana.

Giza eskubideekin lotutako gaiotan oso jokabide zekena da nagusi. Gure iritziz estatuko indar politiko eta botere askok gai hauek onartu nahi ez izatearen zergatia da 1978an ezarritako erregimena oro har inpugnatzeko aukera eragozteko erabaki sistemikoa.

Estatuko eremu eta botere guztiak (botere judizialek hasita) kutsadura ideologiko eta punitibo berak hartuta daude, eta horixe da espainiar estatuaren, hots, arlo guztietako (ekonomia, soziala, kultura, hizkuntza) dominazio egituraren giltzarria. Altsasuko gazteen egoera da errealitate horren erakusgarri dramatiko bat.

Mobilizazio handiak eta aliantza gehiagoren beharra

ELArentzat pozgarria da hainbat mobilizazio sozialek izan duen arrakasta; hor dugu duela gutxi izandako martxoaren 8ko greba feminista, edota pentsiodunen borroka luzea, Hego Euskal Herrian oihartzun handia duena. Halaber aipatzeko modukoak dira Iparraldean errefuxiatuen aldeko mobilizazio eta proiektuak, “txaleko horien” mobilizazioa edota klimaren alde gazteek egindako martxa eta grebak; mobilizazio zikloa oso berezia da. Giro honetan kokatu behar dira ere gehienbat emakumeak protagonista dituzten lan gatazkak, zaintzaren eremuan eta arlo publikoan pribatizatu eta azpikontratatuak zerbitzuetan.

Aliantza sindikal abertzale egonkorrik ez dagoenez, lan munduak askapen nazional, sozial, kultural eta linguistikoaren aldeko borrokan egin dezakeen ekarpena murriztagoa da.

Bestela izatea nahiko genuke. ELAk aliantzen inguruko debatea hiru oinarriren gainean kokatzen du: lehena, mugimendu sindikalaren autonomiak ezker guztia indartzen duela, horrek kontraesanak eragingo baditu ere; bigarrena, aliantzak aliatu guztiak sendotzen dituela, eta lehiak, aldiz, ahuldu; hirugarrena, egungo fase neoliberallean ekintza sindikalak greba-kutxaren moduko interbentzio tresnak behar dituela, horiek gabe ezin baita prekarietatearen aurkako zinezko borrokarik egin. Sindikalismo abertzaleak borroka-narratibaren ekarpen egin dezake; mugatua izango da, baina oso positiboa.

Hego Euskal Herrian handitzen ari da hauteskunde sindikalen epe trinko honetan sindikalismo abertzalearen eta kontzertazio sindikalismo espainiarraren arteko tartea. Lan harremanen euskal markoaren aldeko sindikatuok indartzen ari gara, baina euskal administrazioak estatuko markoaren aldeko postura egin du. Honek agerian uzten du soberanismoak duen potentziala, klase herrikoien helburu eta interes konkretu eta hurbilekin bat egiten duenean. Bestalde, oinarrizko arloetan (elikagaiak, moneta, energia) soberania lortu nahi duten beste mugimendu eta antolakundeekiko aliantza oso aukera ona da balio solidario, demokratiko, feminista eta ekologistek taxututako identitate nazionala sustatzeko. Hau da gure konpromisoa, oinarritik lantzea soberaniaren eguneroko osagaiak, eta behinena langileak antolatzea da.

Gora Euskal Herria askatuta!

Bilbo, 2019ko apirilaren 15a